

EAJ-PSEk bakarrik onartu du bere aurrekontu proiektua, presaka, eta oposizioaren ekarpenik sartu gabe.

Santi Hernando: "2021eko aurrekontuak 2020koen antzekoak dira, pandemia kontuan gutxi hartzen dutenak eta inbertsio gutxiagorekin".

Laudio, 2020.11.24.- EH Bildu datorren urterako aurrekontuak negoziatzeko eta horren inguruan akordio zabalak erdiesteko prest agertu zen hasieratik; are gehiago, bere nahia aurrekontu hauek aho batez onartzea izan da, hau da, udal talde guztien adostasunarekin. Bizi dugun garaian elkarlana ezinbestekoa da, eta asmo horrekin EH Bilduren Udal taldeak aurrekontuetarako ekarpenak zehaztu zituen aurkeztutako proposamenean. *“Atzoko ez ohiko osoko bilkuran EAJ-PSE taldeak bakardadean onartu zuen aurrekontuan ez du sartu EH Bilduk egindako ekarpen bat ere”* adierazi du Hernando zinegotziak.

EH Bilduk parte-hartze prozesu bat martxan jartzeko eskatu zion Udal gobernu taldeari, besterik ez bazen, auzo-batzarretan audioarren ekarpen zuzenak jasotzeko Laudion orain arte egin den bezala. Auzo-batzar hauek ez zituzten deitu. Eta ekarpenak udan egindako deialdi digital baten bidez jasotzera mugatu izan dira. Aurrekontuak lantzeko prozedura inoiz baino motzagoa izan da.

EH Bilduk bere ekarpenen aurrerapena, aurrekontuak aurkeztu zituzten batzordean egin zuen; Udal gobernu taldeak ekarpen hauek ez onartzeko erabili duen aitzakia epetik kanpo aurkeztu zirela izan da, benetazko eztabaidan sartu gabe eta alper harria gainetik pasatzeko ohitura ezkutatu gabe. EAJ-PSE taldea berriro ere bakarrik geratu da.

Hernandok argi utzi du *“EH Bilduren iritziz, aurrekontuen bidez hiru ardatzi heldu behar zaie nagusiki: alde batetik, audioarren osasuna bermatzea; bestetik, enpleguari eusteko neurriak hartzea eta kalitatezko lanpostu berriak sortzea eta, azkenik, kalitatezko gizarte-politikak bermatzea, txarren pasatzen ari direnak laguntzeko. Azken finean jendea babesteko politikak jasotzen dituen dokumentua izatea. Hori guztia audioarrontzako proiektu estrategikoak ahaztu gabe.”*

EAJ-k eta PSE-k 2021erako onartutako udal aurrekontuak aztertzean, berehala ikusten da ia ez dagoela inolako inbertsiorik gure herrian, eta egungo egoera sozio-sanitarioa gutxi hartu dutela kontuan, 2021eko aurrekontuak 2020koen antzekoak dira, pandemia baino lehenagokoak, eta inbertsio gutxiagorekin.

Solo el grupo PNV-PSE ha aprobado su proyecto de presupuestos, con prisas y sin incluir aportaciones de la oposición.

Santi Hernando: "Los presupuestos de 2021 son similares a los de 2020; apenas tienen en cuenta la pandemia y la inversión es menor".

Laudio, 24.11.20.- EH Bildu ha mostrado desde el principio su disposición a negociar los presupuestos para el año que viene y alcanzar acuerdos amplios al respecto; es más, su voluntad ha sido aprobar estos presupuestos por unanimidad, es decir, con el consenso de todos los grupos municipales. En el momento en el que vivimos la colaboración es imprescindible y el grupo municipal de EH Bildu concretó sus aportaciones a los presupuestos con ese propósito. *"No se ha incluido ninguna aportación de EH Bildu en el presupuesto aprobado en solitario por PNV-PSE en el pleno extraordinario de ayer"*, ha señalado Santi Hernando.

EH Bildu pidió al equipo de gobierno municipal, desde el principio, que pusiera en marcha un proceso participativo; por lo menos que convocase las asambleas de barrios para recoger las aportaciones directas de los y las laudioarras como se ha hecho hasta ahora en Laudio. Estas asambleas no han sido convocadas. Y se han limitado a recoger algunas aportaciones a través de la convocatoria digital realizada en verano. El procedimiento de elaboración de los presupuestos ha sido más apresurado que nunca.

EH Bildu hizo un avance de sus aportaciones en la comisión en la que el equipo de gobierno presentó su proyecto de presupuestos. La excusa que ha utilizado dicho equipo para no tenerlas en cuenta ha sido que se presentaron fuera de plazo, sin entrar en el debate real y sin ocultar la costumbre utilizar el rodillo. PNV y PSE se han vuelto a quedar solos.

Hernando ha dejado claro que, *"A juicio de EH Bildu, los presupuestos deben abordar principalmente tres ejes: por un lado, garantizar la salud de la población; por otro, tomar medidas para mantener el empleo y crear puestos de trabajo de calidad y, por último, garantizar políticas sociales de calidad para ayudar a quienes peor lo están pasando. El de los presupuestos debe ser un documento que recoja políticas de protección a la gente. Por supuesto, sin olvidar los proyectos estratégicos para el municipio"*.

Al analizar los presupuestos municipales aprobados por PNV y PSE para 2021, se ve a primera vista que apenas hay ninguna inversión en nuestro pueblo, y que han tenido poco en cuenta la situación socio-sanitaria actual. Los presupuestos de 2021 son similares a los de 2020, anteriores a la pandemia, y con menos inversión.